

① ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Piarres nun gairdi itzuli zen etxerat?
2. Zertan zeramatzkan urhe politak? Nor entzat?
3. Nola hartu zuen bere amak?

II

Piarresen Igandea,  
Biharamuncan

1

Piarres, arrats hartan berean, Donianen gairdi itzuli zen etxera. Haren lagunak, zoin bere alde, joanak ziren hek ere, bertze balentria arte zuhurki ohilduak.

Urhe pullitak sakelan zeramatzkan, gorri gorria, *krin krin* ontsa egin nahiak oro. Bainan, ez; mokanes<sup>2</sup> gorrian tinko korropilaturik, ixil eta prestu heldu ziren Piarresekin, eta Piarres bere buruarekin gogoetetan ari zen, Aldapan hunat, Mingotenean hunat iragaitearekin. Zer boliada<sup>3</sup> bezperakoa, han, Ortzango errekan! Ez zen haratik ez hunatik, Handiaren eskuetan doi doiak egin zuen ez baitzen aldi huntan gelditu! Guarda zaintsua hura, bat izaitekotz! Eta gizon ona, prestua, zuzena, deusik haren kontra athera ez ziteken gizona, bere eginbidea baizik ez zakiena sekulan!...

"-Zer ahamenen ahal dagon guretzat, den tenorean!... Mirakuluz bezala hegiratua ez othe ditiagu gure hogoi pottokak? Bai, Jan-Batitek barda<sup>4</sup> erran bezala, gaizkiago athera gaituk eta atherako ere oraino, hogoi bost aldiz... Bainan, goazin jakituz jakituz; eguncan egunekoa, Piarres! Gure Allan ere hola duk errana, eta ez haiz Jainkoa baino zuhurrago behar. Bego beraz. Handia bere aho-kiretsarekin. Bere eginbidea egin dezala bethi, orai arte bezala, eta gurea, gure biharko egitekoa, bego hura gure gain!..."

Gau beltza arrasgabe, ilhun zeinuetako, etxean zen gure Piarres, Olhaso kasko kaskoan, izar-arte ederrean izar bat iduri, urrundik ikus ziteken etxe xurian.

Piarres urrunduz geroz handik mogitu ez balitz bezala, ama han zen orai ere, hegazpean xut xuta, beltz beltza athearen ondoan... Bainan, bere hura entzun orduko, eta bere harek ikus beldurrez ahalketua bezala, brixakoan<sup>5</sup> sartu zen sukaldean, eta kanit<sup>6</sup> handi bat eskuan, begiak dir dir loriarekin, eman zen xingar azpiari zafla gorri eder bat khendu beharrez.

Zonbat nahi zalu eta ixil itzalia izanagatik, ez zuen amak bere semerik enganatu, eta, hirri maite bat ezpain-xokhoetan, sartu zen beraz Piarres:

"-Jainkoak dauzula gau on, ama!... Arrosario hoik higatuxeak ahal ditutzu gaur gehiago, hardako othoitz luzeak eginik. Bainan hala hala, uste dut baliatu ere zaizkitan aldi huntan. Zer nahi den, huna ni etxean, berriz ere..."

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Sakelan zeramatzkan. 32. Ez zakiena.  
33. Bego hura. 34. Ez balitz bezala.

31. EREMAN - Indicatif Imparfait

Nik eramatzan	= je les emmenais
Hek eramatzan	= tu les emmenais
Zuk zineramatzan	= vous les emmeniez
Harek zeramatzan (zeramatzkan)	= il les emmenait
Guk gineramatzan	= nous les emmenions
Zuek zineramatzaten	= vous les emmeniez
Heiek zeramatzaten	= ils les emmenaient

32. JAKIN - Indicatif Imparfait

Objet singulier	Objet pluriel
Nik jakien (je le savais)	Nazkien = je les savais
Hek jakien =	Hazkien
Zuk zinakien =	Zinazkien
Harek jakien = etc	Zazkien
Guk ginakien =	Ginazkien
Zuek zinakiten =	Zinazkiten
Heiek jakiten = (ils le savaient)	Zazkiten etc.

33. EGON - Impératif

Hi hago	= reste
Zu zande	= restez
Hura bego	= qu'il reste
Gu gauden	= restons
Zuek zandezte	= restez
Hek beude (begode)	= qu'ils restent